

Paper zaharrak aztertzen

1760-1860koak jaso ditu Koro Murok ▶ 2



Igor Astibia leitzarra atxilotu du Poliziak

INKOMUNIKATUTA ▶ «Bost egun pasatu arte ez dago deus ere jakiterik», esan du abokatuak

16 ATXILOTU ▶ Hego Euskal Herri osoan burututako operazioan beste 15 lagun atxilotu dituzte ▶ 7

TOLOSA ▶

Goren mailan lider da berriro futbol taldea

Luzapenean irabaziz ion Ordiziari ▶ 3



Etxeberria anaia idazleek aipamen biografikoa egin dute ikasleekin

ABALTZISKETA ▶ Herriko eskolako haurrek Xabier eta Martin Etxeberria anaia idazleen bisita jaso zuten herenegun. Ipuinak irakurri ondoren, idazleen aipamen biografikoa egiten dute ikasleek eta horretan lagundu zieten idazleek. **MADDI SOROA** ▶ 5

ANOETA ▶

Kiroldegia eraikitzeko «elkarlana» eskatu du Udalak, zergak igoz

«Zama ekonomikoari» aurre egiteko ▶ 4

ELDUAIN ▶

Herriko Kontzejuak arduradun berria du: Ramon Jimenez sukaldari tolosarra

Proiektu berriarekin «pozik» agertu da; hamazazpi urtez aritu da sukaldari gisa; bestelako ekitaldiak antolatzeke asmoa agertu du ▶ 6



Ramon Jimenez. I.TERRADILLOS



KORO MURO ARRIET ▶ LIBURUAREN EGILEA

«Garaiko gizartea erakusten dute testamentuek»

Aranzadi zientzia elkarteak Tolosaldeko 1760-1860
«garai interesgarriko» testamentuak jaso ditu liburu batean

JOXEMI SAIZAR

Aranzadi zientzia elkarteak tin-ko jarraitzen du Tolosaldea Historia Bildumarekin. Aurretik Intxur, Altzo, Iruira eta Adunari buruzko liburuak kaleratu bazituen ere, atzo arratsaldean *Tolosaldea bere testamentuetan (1760-1860)* liburuaren aurkeztu zuen Tolosako Kultur Etxean. Irakurleak liburuak aurkituko duena azaldu zuen. Koro Muro Arriet da egilea. Historian lizentziatua eta Kultur Baliabideen Kudeaketan espezializatuta, Hernanin jaio eta Tolosan bizi da. Kultur kudeaketan eta ikerketa historikotan aritu da eta gaur egun kultur ondarearen hedapenean garatzen du bere lana.

Nondik sortu da liburuaren ideia?

Duela bederatzita urte beste lagun batekin batera Foru Aldundiak deitutako ikerketa beka baterako aurkeztu nintzen. Beka irabazi eta lan hau egin genuen bi urtetan zehar. Diputazioak berak argitaratu ez duenez, urte batzuk pasatu ondoren, Aranzadik argitara eman du orain.

Nola egin zenuten lana?

Donostiako Elizbarrutiko eta Diputazioko artxiboetan protokolo notarialak aztertu genituen. 300 testamentu hartu genituen lagin modura, guztira 500 agiri inguru.

Zein ondoriotara iritsi zara?

Bederatzita ataletan banatu dugu liburuaren baina garai hartan nolako gizartea, ohiturak, kezkak, osasun arazoak, ohiko gauzak... zeuden jakiteko testamentuak tresna egokia dela ikusi dugu. Adibidez, Elizbarrutiko artxiboan hildakoen berri dago. Tolosan urtero 14 bat hildako bazeuden, hilabete batean 65 hildako agertzen badira, izurrite, gerrate edo horrelako zerbaiten seinale da. Horrelakoetan testamentu gehiago dago.



HITZA

Zein desberdintasun ikusi duzue Tolosaldeko herrien artean?

Hiri eta landa mundua oso desberdinak dira. Hirian etxea eta dirua uzten zuten herentzian. Baita zorrak ere. Landa munduan berriz, etxea, abereak, baratza...

Zergatik aukeratu duzue garai hori?

Ideologikoki eta politikoki oso interesgarria iruditu zaigulako. Karlistadak, Konbentzio gerra, industria iraultza... Gertaera garrantzitsu asko izan zen eta horiek eragin handia dute testamentuetan.

Horrelako besterik egin al duzue?

Duela urte batzuk Andoaingoa egin nuen, baina oso desberdina izan zen: herri bakarra zen eta hiri eta landa munduaren arteko desberdintasun hori ez zen nabari han.

Zerbait gehiago liburuaz?

Argazkien bilketan ere lan be-

rezia egin nahi izan dugu. Liburu mardula da eta arintzeko argazki zahar eta berri ugari sartu ditugu.

FITXA ▶



Liburu. HITZA

Izenburua. *Tolosaldea bere testamentuetan (1760-1860).*

Egilea. Koro Muro Arriet.

Bilduma. Tolosaldea Historia Bilduma.

Zenbakia. 5.

Argitaratzailea. Aranzadi zientzia elkarteak.

Babesleak. Tolosako Udala eta Ilustre Colegio Notarial de Pamplona.

Laguntzaileak. Galtzaundi Euskara Taldea, Lizardi elkarteak eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA.

Orrialde kopurua. 184.

Prezioa. 15 euro.

MENDIA ▶

Errioxako mendiak, Alpino Uzturrerekin

Alpino Uzturre elkarteak Errioxara (Espainia) mendi irteera antolatu du igandera-ko, hilaren 21a. Matute-Matute ibilaldia osatuko dute, bost orduko «ibilaldi erraza eta polita». Bidean, Peña Tobia (1.059 metro) eta Cerro Peñalba (1.203 metro) mendiak igoko dituzte. 07:00etan hartuko dute autobusa, Pablo Gorosabelen. Informazio gehiago jakiteko eta izena emateko Alpino Uzturrera jo behar da (Gudari kalea, 5-behea. 943 65 27 89).

TXIRRINDULARITZA ▶

Íñaki Arratibelek Phonak taldea utzi du

Íñaki Arratibel ez da datoren denboraldian Phonak-eko sendagilea izango, taldea uzteko erabakia hartu baitu. *Doping* kasuek izan dute eraginik erabakian. «Txirrindularien erregulazioaren» sinisten duela berretsi du tolosarrak. «UCI-ko mediku komisioak azaldu duen jarrera eta kolaboratzeko asmorik eza» kritikatu ditu, era berean. Frustrazio horrek eta bere lana zaltzen jartzeak eragin du taldea uztea. Familiak hori egitera animatu duela dio.



Íñaki Arratibel medikua. J. SAIZAR

POLITIKA ▶

Karlisten Kongresuko ondorioak

Alderdi Karlistak XI. Kongresu Federala egin du asteburuan Tolosan. Zenbait gai izan dituzte hizpide, eta alderdiaren apustua berretsi dute: «Beste ezkerria posible da, autogestio globalaren sozialismoa». Europako Konstituzioari «ez» esan diote Kongresuan, «ez delako herrentzat, egun eraturik dauden estatuentzat baizik». Era berean, Espainiako Konstituzioa «indargabetzea» eskatu dute, eta «bidea elkarriketara» dela azpimarratu. Evaristo Olcina hautatu dute berriro idazkari federala.

INAUTERIAK ▶

Inauterietan Ttentek taldearekin

Ttentek aisialdi taldeak zabaldu ditu dagoeneko Inauterietan dantzan ateratzeko zerrendak. Taldearekin atera nahi dutenek hilaren 24an, 25ean, eta 26an San Frantzisko elizako lokaletara (Soldadu kalea, 2) agertu behar dute, 18:00etatik 20:00etara.

HITZALDIA ▶

Beldurra eta ipuinak hizpide, Kultur Etxean

Haur Liburutegiak ipuinen eta beldurraren inguruko zenbait ekimen antolatu ditu hilabete honetan. Gaur, esaterako, *Beldurraren trataera ipuinen bidez* hitzaldia eskainiko du Juan Carlos Alonso psikologoak. Gurasoei eta ikasleei dago zuzenduta saioa, eta 18:00etan hasiko da, Haur Liburutegian. Bestalde, Beldurraren aretoa izeneko erakusketa ikusgai dago bertan, hilaren 29a arte, egunero, 17:00etatik 20:00etara.

HITZALDIA ▶

Emeterio Arrese gogoratu, hitzaldia bihar

Emeterio Arrese euskaltzale eta literaturagile tolosarra hil zela 50 urte bete dira. Hori dela eta, Tolosako Udaleko Euskara Batzordeak haren lanari eta bizitzari buruzko hitzaldia antolatu du. Bihar izango da, arratsaldeko zazpiak eta erdietan, udaletxeko batzar aretoan. Juan Garmendia Larrañaga etnologoak eta Jose Mari Iturralde idazleak eskainiko dute hitzaldia. Emanaldia «jende guztiari irekia» da, eta «herriar guztiak bertara gonbidatu» ditu Euskara Batzordeak.

 <p>ALEGIAKO UDALA</p>	<p>LAN KONTRATAZIOAK 6 HILABETERAKO</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kultur dinamizatzailea • Alegiako Kultur eta Kirol etxerako garbitzaile-atezaina <p>Aurkezteko epea; 2004-11-19 arte. Informazioa: Udal bulegoetan • Ordutegia: 9:00 - 14:00</p>
--	--

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakum. Ohorezko Maila.

Hegoalde-Goierri	1-0
Saillkapena ▶	
1. Femesala Elx	24 puntu
2. Foticos Zaragoza	21 puntu
3. Futsi Navalcarnero	20 puntu
4. UCAM Murtzia	19 puntu
5. Ourense	18 puntu
6. Club Teledeportivo	16 puntu
7. Ketal Fuenlabrada	13 puntu
8. Mostoles	10 puntu
9. Diamante Rioja	9 puntu
10. Gironella	8 puntu
11. Hegoalde Tolosa	7 puntu
12. Gironella	7 puntu
13. Arturo Eyries Valladolid	6 puntu
14. Goierri Urrebu	4 puntu
15. Valdeñires Meiras	3 puntu
16. Cabanyal Valencia	1 puntu

1. Maila A.

Carniceria Saenz-Ibarra	3-5
-------------------------	-----

Jubenilen Maila.

Gaztelueta-Lauburu	0-11
--------------------	------

ESKU PILOTA

ELKARTEEN ARTEKOAK

Infantilen 1. Maila.

Elordi-Aurrera Saiaz 2	18-01
------------------------	-------

Kadeteen 1. Maila.

Aurrera Saiaz-Urnieta	22-05
(Xabier Tellebea)	
Zazpitturi 1-Elordi Herrigintza	22-10

Kadeteen 3. Maila.

Eibar-Elordi	22-19
--------------	-------

Gazteen 1. Maila.

Aurrera Saiaz-Txapagain	22-03
(Koldo Galarraga)	

Gazteen 2. Maila.

Zumaia 1-Aurrera Saiaz	22-08
(Beñat Iriarte-Xabier Galarraga)	
Elordi Herrigintza-Arrasateko*	22-00
	*Ez zen agertu

Nagusien 1. Maila.

Zazpitturi-Aurrera Saiaz	22-04
(Imanol Pastrain)	
Aurrera Saiaz-Bergara	14-22
(Mikel Beloso-Iker Huarte)	

Nagusien 3. Maila.

Intza-Aurrera Saiaz	14-22
(Igor Aranzabe-Eneko Galarraga)	
Aurrera Saiaz-Illunpe 2	22-11
(Ugaitz Renobales-Aimar Galarraga)	
Aurrera Saiaz-Ramunbo	22-01
(Xuban Pikabea-Ion Orbegozo)	

FUTBOLA

Gorengoen Maila.

Tolosa-Ordizia	1-0
Saillkapena ▶	
1. Tolosa	21 puntu
2. UPV/EHU	19 puntu
3. Ordizia	19 puntu
4. Real Union B	18 puntu
5. Arexabaleta	18 puntu
6. Mutriku	18 puntu
7. Zarautz	17 puntu

8. Hondarribia	17 puntu
9. Orioko	17 puntu
10. Touring	16 puntu
11. Urola	15 puntu
12. Pasajes	15 puntu
13. Trintxerpe	15 puntu
14. Mondragon	14 puntu
15. Anaitasuna	13 puntu
16. Beti Gazte	12 puntu
17. Aloña Mendi	11 puntu
18. Zestoa	11 puntu
19. Oiarzun	7 puntu
20. Bergara	6 puntu

Nesken Liga.

Urnieta-Tolosa	1-3
----------------	-----

Lurraldeko 1. Maila.

Aurrera-Beti Onak	2-1
Euskalduna-Tolosa B	2-0
Saillkapena ▶	
1. Allerru	20 puntu
2. Martutene	18 puntu
3. Euskalduna	16 puntu
4. Beti Ona	14 puntu
5. Ostadar	14 puntu
6. Irun 1902	14 puntu
7. Lengokoak	14 puntu
8. Astigarragako	13 puntu
9. Roteta	13 puntu
10. Mariño	11 puntu
11. Behobia	11 puntu
12. Vasconia	9 puntu
13. Gure Txokoa	8 puntu
14. Amara Berri	7 puntu
15. Ordizia	7 puntu
16. Tolosa B	5 puntu

Lurraldeko 2. Maila.

Amaroz-Danena	4-8
Usurbil-Intxurre	2-0
Saillkapena ▶	
1. Sanpedrotarra	19 puntu
2. Danena	15 puntu
3. Usurbil	13 puntu
4. Lazkao	10 puntu
5. Amaro	9 puntu
6. Lasarte Oria	6 puntu
7. Intxurre	6 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Sporting Herrera-Tolosa	1-5
-------------------------	-----

Jubenilen 1. Maila.

Billabona-Ikasberri	4-1
Intxurre-Internacional	6-3

Kadeteen Euskal Liga.

Tolosa-Sporting Herrera	3-1
-------------------------	-----

FUTBOL 7

1. Maila.

Ibarrako GA-Robers	2-6
Lanbroa Dickens-Bataplán	2-4
Saillkapena ▶	
1. Robers	21 puntu
2. Knauf-Dec. Nuñez	20 puntu
3. Zibibito Dance Club	19 puntu
4. Bataplán	15 puntu
5. Perku taberna	14 puntu
6. La Kabutzia	12 puntu
7. Callejo Lanperna	12 puntu
8. Easo Motor	11 puntu
9. Zardoya Otis	11 puntu
10. Bar Ignacio-Hondarribia	10 puntu
11. Lanbroa Dickens	8 puntu
12. Kroms	7 puntu

13. Ibarrako Gazte Asanblada	6 puntu
14. Irish Guinness	5 puntu
15. St. Etienne Cafe Bar	5 puntu
16. Cesar Rueda Seguros	3 puntu

2. Maila A.

Bar Shanti Kirolak-Fermax Ins.CG.	3-5
Saillkapena ▶	
1. Pub Egarri	22 puntu
2. Ekin Fisioterapia Zentroa	17 puntu
3. Bar Shanti Kirolak	16 puntu
4. Taberna Dani	15 puntu
5. Ron Cartavio	14 puntu
6. Akelenea sagardotegia	13 puntu
7. Disco Bar Egur	13 puntu
8. R. Izkina-Pasaia	13 puntu
9. Ikena	10 puntu
10. Encofrados Iguazuri	10 puntu
11. Eibartarra Dance Club	9 puntu
12. In the line	7 puntu
13. Fermax Instalaciones GC	5 puntu
14. Papeleria Tamayo	5 puntu
15. Cabo Rojo-Pyxies	4 puntu
16. Nin Climatizacion	3 puntu

ZESTA-PUNTA

ELKARTEEN ARTEKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Gazteak.

Beotibar 1-Zumaia	35-23
(Mujika-Orrantia)	

SANTA LUZIA TXAPELKETA

Infantilak.

Erauskin-Izagirre / Gabarain-Alberro	15-10, 15-12
--------------------------------------	--------------

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Luzapenean lider

1-0 irabazi zion Tolosak Ordiziari, 94. minutuan, Elolaren golari esker, eta lider da berriro Gorengoen Mailan

LEIRE MONTES

Bi taldeetako zale ugari jarraitu zuten, Berazubini, Tolosaren eta Ordiziaren arteko «neurketa berezia». Partida bizia jokatu zuten bi taldeek; baina, batez ere, «giro bikainekoak». Norgehiagoka hutsna amaituko zela zirudienean, hiru puntuak etxean geratzeko lortu zuen Tolosak, luzapenean Elolak sartutako golari esker. Hala, urdinak lider dira berriro.

Jose Mari San Sebastian taldeko delegatua kontent da emaitzarekin eta larunbatean bizitutakoarekin: «Partida polita izan zen, bai joko aldetik baita giro aldetik ere. Zelaia ere, jokatzeko ezin hobeto zegoen. Gainera, badirudi aurreko partidetan izan genuen zorte txarra uxatu egin dugula; oraingoan bai, ate aurrean asmatu dugu eta. Oso pozik gaude». Lehen zatian ordiziarrak to-

TOLOSA ▶ 1

Tolosa. Apeztxea, Gorka, Unai, Aimar, Jon, Regillaga (Christian, 84m.), Orue, Romero, Aierbe (Garagarza, 45m.), Aranguren (Ilunbe, 70m.) eta Prados (Eirola, 62m.).
Ordizia. Martin, Arkaitz, Peio (Iker, 73m.), Lekuona, Iraola, Aitzol, Iñigo (Egoitz, 65m.), Ander (Sergio, 79m.), Irastorza (Urdangarin, 86m.), Odriozola eta Crespo (Insausti, 70m.).
Golak. 1-0: Elolak (94m.).
Txartelak. Tolosako Unairi eta Romerori. Ordiziako Lekuonari eta Aitzoli (Aitzolek bigarren txartel horia ikusi zuen 84. minutuan).

losarrak baino hobeto aritu ziren. Delegatuaren esanetan, «oso talde ona du Ordizia. Primeran aritu zen, asko gustatu zitzaidan». Bigarren zatian, aldez, Tolosa izan zen nagusi. Bi taldeek arrisku jokaldi dezentetako sortu zituzten; baina, azkenean, eta ezustean, urdinek sartu zuten partidaren gol bakarra, 94. minutuan.

Berriro lidergoa lortuta, «bolar onari eustea eta aurreko postuetan mantentzea» dute

ORDIZIA ▶ 0

orain helburu urdinek. «11 partida besterik ez ditugu jokatu; Liga asko gelditzen da, beraz, eta saillkapena asko alda daiteke oraindik. Baina goiko postuetan mantentzea izan behar du uneoro gure erroka, aukerarik ez galtzeko. Gogotsu borrokatuko gara horretarako», dio, tinto, San Sebastianek.

Datorren larunbatean Mutrikuaren kontra jokatu dute Tolosakoek, etxetik kanpo.

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

Derbiko hiru puntuak etxean geratu dira

Hegoalde 1-0 irabazi zion larunbatean Goierri taldeari; «partida garbia» izan zen

ERREDAKZIOA

Hegoalderen eta Goierriren arteko derbiak ikusmina piztu zuen, eta zale asko eta asko izan ziren larunbatean Berazubi kiroldegiko harmailetan. Cho Oyu jaistean hil zen Xabier Ormazabal 23 urteko mendizale urretxuarraren omenezko minutuko isilunearen ondoren hasi zen partida.

Urduri ziren bi taldeak, baina joko bizia eta azkarra egiten asmatu zuten. Derbia izan nagatik, garbi aritu ziren jokalariek. Hala zioen Madarran epaileak: «Tentsio handiko partida izan da, baina garbia. Derbiak gogorrak izaten diren arren, jokalariek garbi jokatu dute». Aukera ugari izan zituzten bi taldeek; Hegoalde, baina, sartu zuen partidako gol bakarra, eta harentzat izan ziren hiru puntu garrantzitsuak.

HEGOALDE ▶ 1

GOIERRI ▶ 0

Hegoalde. Lourdes Zurirrain, Miriam Arana, Edurne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Itziar Aldezabal, Nerea Salazar, Esther Videra, Miriam Prados, Gema Celaya, Arrate Martinez, Maider Lopez eta Isa Barrio. Entrenatzaileak: Virginia Amilibia eta Maite Argote.
Goierri. Ane Lizarraga, Izaskun Sanz, Virginia Delgado, Izaskun Martinez, Vanessa Bahon, Tabiano Araujo, Beatriz Martsa, Iguntze Aseginolaza, Sarah Ugarte, Itziar Irababalbeitia eta Ana Berciano. Entrenatzailea: Jose Manuel Garcia Etxaniz.
Golak. 1-0: Lopezek (08m.).

ADUNA ▶

Antzerki bakarrizketa Kultur Astean

Astelehenean hasi eta igandean bukatuko den Adunako Kultur Astea aurrera doa. Gaurko ekitaldia antzerkiaren esparrukoak izango da. Ander Lipus aktoreak *Ardoaz* izeneko bakarrizketa eskainiko du. Emanaldiaren hitzordua Kultur Aretoan izango da eta arratsaldeko 20:30ean hasiko da.

ALKIZA ▶

Aitor Eizmendi izango da zinegotzi berria

Antonio Zubiaurre alkate ohiaren heriotzaren ondoren, lehen zinegotzi zen Jon Roteta izendatu zuten alkate posturako. Beraz, zinegotzi berria izendatu behar zen. Gobernuan dagoen kandidaturako zerrendan zeudenak ezezkoea esan zuten. Azkenean, Aitor Eizmendi izango da zinegotzi berria.

ANOETA ▶

Ipuin kontaketa bihar udal liburutegian

Anoetako Udalak hainbat ipuin kontaketa saio antolatu ditu. Horieta bat bihar izango da, 18:00etan eta udal liburutegian, Lamiak taldearen eskutik. Saio hauek Haur Hezkuntzako 2. eta 3. maila eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoei daude zuzenduta. Antolatzaileek puntualitatea eskatzen dute.

VILLABONA ▶

Ikasle Eguneko kontzerturako sarrerak salgai

Larunbatean Villabonan egingo den Ikasle Egunean baitan kontzertu erraldoia antolatu du Ikasle Abertzaleak-ek. Sarrerak salgai daude, 12 eurotan, herri eta taberna hauetan: Villabonan, Iratzar; Tolosan, Raku eta Denak; Alegian, Iskiña; eta Ibarrran, Atari. Egun berean 15 euro balioko ditu sarrerak.

VILLABONA ▶

Agresibitatearen inguruko bigarren hitzaldia bihar

Jendearen erantzun ona ikusita, agresibitatearen inguruko bigarren saioa antolatu dute Ernio-bea Institutuko Guraso Elkarteak. *Familian eta ikasleen arteko agresibitatearen* izenburuztat duen solasaldia Gurea aretoko erakusgelan izango da bihar, osteguna, arratsaldeko 18:00etan hasita.

VILLABONA ▶ KULTURA



Idazlea eta ikasleak solasaldiaren une batean. I. GARCIA

Literatura eta historia lotuz

Toti Martinez de Lezea idazlearekin solasean ibili ziren Ernio-beako ikasleak

IMANOL GARCIA

Bisita berezia izan zuten atzo Ernio-bea Institutuko DBHko laugarren mailako ikasleak. Toti Martinez de Lezea idazlearekin *La herbolera* liburua erakutsi zuten. Horregatik, idazlea gonbidatu zuten, literaturari eta euskal historiari buruz solasteko.

«Idazleen mundua desmitifikatzeko, literatura hurbilago bizitzeko eta irakurzaletasuna

bultzatzeko balio dute horrelako egitasmoek», azaldu du Mila Iztueta irakasleak. Iaz ere egin ziren horrelako solasaldiak eta aurten ere beste batzuk egitea espero da.

Toti Martinez de Lezea gus-tura zegoen: «Horrelako solasaldiak gustuko ditut, atsegina delako eleberria eta gure historiari buruz irakurleekin hitz egitea». «Historia txikia gogoraraztea» gustatzen zaiola erantsi zuen idazleak, «askoz ere interesgarriagoa baita». Solasaldiaren ondoren Ernio-beako ikasleak eleberriak sinatzeko eskatu zioten bisitan etorritako idazleari.

ANOETA ▶ UDALA

Udala: «Elkarlana behar da kiroldegia eraikitzeko»

«Zama ekonomiko itzelari» aurre egiteko hainbat tasa eta zerga igotzea proposatu du

I. GARCIA

Anoetako Udalak ez ohizko bilkuran herriko egoera ekonomikoa aztertu zuen. Azterketaren puntu nagusia kiroldegi berriaren eraikuntzak Udalarri suposatuko dion kostua izan zen. «Kiroldegiaren eraikuntza herriaren eskaera garrantzitsuenetakoa izan da azken urteotan. Anoetak ez du disziplina anitzeko kirol instalakuntzarik eta hori beharrezkoa da ikastolako haurtzat ezezik, herriko biztanle guz-tiontzat», azaldu du Fidel Azpiroz alkateak.

Kiroldegi berriaren proiektua ikastolatik sortu zen, honek bere beharrak asetzeko kirolgune berri eta xume bat behar zuelako. Baina garaiko udal gobernuak proiektua birplanteatu egin zuen eta anoetar guztieki irekita egongo zen kiroldegia eratzea erabaki zuen. Honela, iaz hasi zen legegaldi berriko udal ordezkariek 2.300.000 euroko kostua zuen onartutako proiektu batekin aurkitu ziren mahai gainean. «Kiroldegiaren eraikuntza Anoetak zuen betegabeko asignatura izan arren, eta honen eraikuntza beharrezkoa bada ere, proiektuaren onarpenarekin batera honen bidegarritasuna bermatuko lukeen plan ekonomikorik ez zegoela ohartu zen gaur egungo udal gobernuak», dio alkateak.

Proiektuaren eraikuntza lanak «zama ekonomiko itzela suposatzen du Udal honentzat. Epe motzean ordaintzeko konpromiso ekonomiko altuak ditu, eta hala ere, ez dira finantziario iturriak aurriku-

si», azaldu dute Udaletik. «Zama ekonomiko larriari aurre egiteaz gain, geure herriak Gipuzkoan ezaugarri antzekoak dituzten beste herri batzuk baino askoz aurrezpen maila txikiagoa du eta honek ez du uzten udal kutxetatik inolako diru kopurua ateratzen», gaineratu du Azpirozek. «Horregatik, eta nahiz eta udalbatzarak eta anoetarrek egin behar harko duten ahalegina itzela izango den, Anoeta erronka handi hau aurrera eramateko gai dela ziur gaude, baina horretarako guztion elkarlana beharrezkoa izango da».

2005eko udal zergak eta tasak finkatzerakoan ikusi dute Udaletik egin beharreko «ahalegin berezi hau» eta horregatik udal gobernuak datorren ekitaldirako hainbat tasa eta zergaren igoera proposatu du. Esaterako, uraren tasak Gipuzkoako batz bestekoa den 0'14tik Gipuzkoako batz bestekoa den 0'164ra pasako da. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan ponderazio koefizientea mar-txan jartzea erabaki da eta beraz negozio bakoitzaren fakturazio mailaren arabera ordainduko da zerga hau. Trakzio mekanikoko Ibilgaitzak egungo gaineko zergan 1'65a izango da koefizientea eta eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergan 4'4koa.

GUTUN@K ▶



Larunbatean guztiok Villabonara!

Hitzordu garrantzitsua da larunbat honetakoa euskal ikasleontzat. Izan ere, Ikasle Eguna ospatzen dugu Villabonan azaroaren 20ean. Eta hori da, ezbaiz gabe, urteko zita garrantzitsuenak ikasleontzat Euskal Herrian. Edo garrantzitsuenetakoa bai behintzat. Larunbatean historia idatziko dugu, eta harrokeriarik gabe diogu hori, ziur gaudelako mila-ika ikasle bilduko gara bertan, eta egun handia izango dela. Izan ere, egitaraua bera, egun handi baten egitaraua da: harre-erikaldia, erakusketa, olimpiadak, bazkari herrikoia, kale animazioa, punta-puntako bertso-lariak, manifestazioa... Eta 20:30etik aurrera N-1 errepide ondoko karpa erraldoian ekitaldia eta izugarriko kontzertua: Marea, Hamlet, Eras, Las Niñas, Kauta. Sarrerak 12 euro aurrez eta 15 bertan. Bertara joateko, arazorik ez. Donostiatik trenetxe eta autobusez joan daiteke, eta berdin Tolosa, Andoain, Beasain, Ordizia, Zumarraga... eta inguruko herrietatik. Kotxez joateko Andoain hartu behar da erreferentzia gisa, eta han ondoan dago Villabona N-1aren magalean. Horrez gain, hainbat autobus antolatu dira herrietan goiz eta arratsalde bertara hurbiltzeko. Informazio gehiagorako behatu www.ikasle-abertzaleak.org helbide elektronikoa. Hurbildu zaitezte, Euskal Herriko ikasle eta herritarrak Villabonara larunbatean, denon artean historia idatziko dugu eta.

ENEKO BARBERENA MONDRAGON ▶
IKASLE ABERTZALEAK-EN IZENEAN

ZUZENKETA ▶

Behobia-Donostian Sebas Aranburu billabonatarren denbora 1:38:08 izan zen.

MENDI-ALDE
Eguneroko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak,... **Jatetxea**
San Esteban auzoa, 39 • ☎ 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

ABALTZISKETA ▶ KULTURA

MADDI SOROA

Badatoz, badatoz! Beraiek dira! oihukatuz egin zieten harrera eskolako haurrek Etxeberria anaiak bi-kiei. Ilusioz eta pozez beterik zeuden haurrak. Gustura eta paraje ederrarekin txundituta, berriz, Xabier eta Martin.

Etorrera berezi honen arrazoia, azkenaldian eskolako haurrek ipuin ezberdinak irakurtzen dihardutela da. Behin ipuinak irakurri ondoren, idazleak aipamen biografikoak lantzen dituzte. Halaxe egin dute Grimm anaiekin edota Charles Perraultekin, esaterako. Etxeberria anaien *Pako fakirra* irakurri ondoren, ordea, beren datu biografikorik ez zutela ohartu ziren. Martin eta Xabierren informazio gehiago jaso asmoz, euskal idazleen elkar-terea eskutitza bidali zuten haur-
rrek. Izan ere, *Katu botaduna* ren edota Hansel eta Gretelen idazleen inguruan informazio anitz lortu zuten haurrek; Etxeberria anaien berri, ordea, ezer gutxi zuten.

Eskutitza bidali eta handik gutxira jaso zuten erantzuna Abaltzisketako eskolan. Baietz, jaso zutela gutuna eta eskolara joango zirela, haurrekin egon eta aipamen biografikoa osatzeko. Hura poza haurrena! Oraindik sinetsi ezin zutelarik, segituan hasi ziren idazleentzako galderak eta haur bakoitzari gehien gustaturiko ipuin berridatziez eta argazkiez osaturiko oparia prestatzen.

Etxeberria anaiak

Xabier eta Martin zarauztarrak dira eta bakoitzak bere lanbidea badu ere, elkarrekin idazten dute. Ez elkarrekin eseri eta batera idatzi, elkarrekin pentsatutako ipuin eta liburuak idatzi baizik. Hasiere batean gustuz idazten bazuten ere, argitaletxei beren lanak gustatu, eta zenbait ipuin eta liburu argitaratu dituzte azken urteotan.

Bakoitzak bere ibilbide propioa egin arren —Martinek hainbat poema liburu argitaratu ditu; Xabierrek, berriz, *Egun denak ez dira berdin* eta ipuin bildumak idatzi ditu—, elkarrekin idazteko saiakera egin zuten. Horren fruitu izan zelarik 2000. urtean argitaraturiko *Airean ere usaina nabari da*. Bizitako esperientziarekin gustura, bigarren ipuina idatzi zuten 2002an, *Pako fakirra*, hain zuzen ere. Urte berean, *Anaiak ematen duzue* ipuina idatzi zuten, eta ondoren *1878koa* azken balearen istorioaren liburu plazaratu zen. Aurten, ordea, *Itxoidazu Cafe de Passy*-n eleberria idatzi dute.

Etxeberria idazleak eskolan

Etxeberria bikiek aipamen biografikoa osatzen lagundu diete haurrei



Martin eta Xabier Etxeberria haurren galderari erantzuten. HITZA.

XABIER ETA MARTIN ETXEBERRIA ▶ IDAZLEAK

«Aberatsak izateko era asko dago»

Gelaren erdialdean eserita, haurren begiak begira... haurrek prestaturiko honako galdera hauei erantzun zieten Etxeberria anaiek.

Amaia. Nola asmatu zenuten Pako Fakirra?

Xabier: Guk John izeneko lagun begetariano bat daukagu eta nola gu pixka bat gaiztoak garen, ba beti adarra jotzen genion. Hala, brometan genbiltzan batean, gure lagunak fakir lana ezingo zuela egin esatea burutatu zitzaigun, burnia ez-paita berdura. Txorakeria hari bueltak ematen hasi ginen eta John jarri beharrean —hase-rreru egingo zen bestela— Pako izena jarri eta Pako fakirra asmatu genuen.

Mikel. Esan al diozue Pako fakirrari ezpata gehiagorik ez jateko?

Martin: Bai, ipuinaren bukaeran ez du ezpata gehiagorik jaten. Hoberena litzateke ez Pakok eta ez inork, ez ezpatarik ez misilik edukitzea eta denok bakean bizitea.

Elixabete. Ipuin politak idatzi al dituzue?

X.: Nik uste dut baietz ezta? Ahal den politenak idazten saiatzen gara behintzat. Guri irakurtzea gustatuko litzaizkigukeen istorioak idazten saiatzen gara.

Aitor. Ipuin txikiak hala handiak idazten dituzue?

M.: Handiak eta txikiak eta luzeak eta motzak. Orain, adibidez, ipuin luze bat atara berri dugu 300 orrialde ingurukoa.

Ane. Noiz jaio zineten?

M.: 1974ko urriaren 7an. Lehenbizi ni jaio nintzen eta handik bost minutura Xabi. Gainera, nire amak haur bakarra zertorrela uste zuen! Ez zekien bikiak eduki behar zituela.

Imanol. Aberatsak al zarete?

M.: Askok eta oso, baina diruz ez horrenbeste. Aberatsak izateko modu asko daude. Idazteak, ordea, ez du diru gehiagorik ematen. Ez dut uste Euskal Herrian hortaz jende asko bizi denik.

Irakaslea. Zaila al da elkarrekin idaztea?

M.: Miloiaren galdera! Xabier beti adibide bera jartzen du, patata tortilarena, kar, kar!

X.: Patata tortila banaka edo binaka egin daiteke, ipuinak bezala. Biok elkartu eta zer egin nahi dugun erabakitzen dugu, zein osagai izango dituen adostuz. Gero zatika egiten dugu, bat hasten da eta besteak jarraitzen du. Berak hasiera jarri eta nik jarraitu edo alderantziz, bertsotan bezala. Bukatutakoan bestearena irakurri, zuzendu eta lixto.



Herri Irratia
RADIO POPULAR



EZKONTZAK 2005

e-mail: novios05@herri-irratia.com

DONOSTIA - OM 1224 - FM 94.8

<p>SILKEN AMARA PLAZA HOTELA 943-464600 Oparia: Silken kateko hotolean 2 pertsonentzako asteburua.</p> <p>BAYON Bergara, 23 - Donostia. 943-425087 Emaztegai eta amabitxientzako</p>	<p>jantziak. Oparia: Emaztegaiaren jantziarentzako erosketa txartela</p> <p>AITZBELTZ Arteta, 1 - 943-591226-Andoain Sukaldeko altzari eta etxetresna-elektrokoak. Oparia: AEG ikuzgailua, azken belaunaldikoa</p>	<p>SANCHEZ INPRIMATEGIA Easo, 33 -Donostia 943-465308. Ezkontzarako gonbidapen eta opariak. Oparia: Ezkontzarako gonbidapenak.</p> <p>ANTZINAKO KOTXEAK 627-467219</p>
--	---	--

<p>LOIOLA - FM 99.8</p> <p>BIKOITZ ARGAZKIAK Andoain. 943-300727 Erreportajeak eta estudio argazkia. Oparia: % 50eko beherapena ezkontzako bideo erreportajeen.</p> <p>JAUREGUI JATETXEA Hernani. 943-550034 Era guztietako ospakizunak.</p>	<p>Oparia: Presidentetza-mahaiarentzako bazkari edo afaria.</p> <p>MUNDO MUEBLE ARRE Iruña. 948-331161 Era guztietako altzariak. Oparia: Erosketa txartela.</p>	<p>AMETS LEIHOAK Carlos I, 19 - Donostia 943-465658. Sumun lehioak, Lunun terrazak... Oparia: 300,- -tako beherapen txartela</p> <p>CODORNIU Zure ospakizunetako cava. Oparia: Ezkontzako cava</p>
---	--	--

2005 urtean ezkontzera bazoaz, idatzi gutun bat edo kupoi hau bete eta azaroaren 25a baino lehenago bidali ondorengo helbidera:

<p>HERRI IRRATIA - DONOSTIA Garibai, 19 - 20004 DONOSTIA</p> <p>HERRI IRRATIA - LOIOLA Loiola Auzoa - 20730 AZPEITIA</p>	<p>Senargaiaren en-abizenak:</p> <p>Tel.: Helbidea:</p> <p>Posta-kode: Herria:</p> <p>Emaztegaiaren izen-abizenak:</p> <p>Tel.: Helbidea:</p> <p>Posta-kode: Herria:</p> <p>Ezkontzaren inguruko data:</p>
--	--

Loyola Media, S.L., ek L.O.151199-ko Izara Pertsonaleko Datuen Babesean oinarrituta, jakinarazten du Datu Pertsonal guztiak fitategi batelatan sartuko direla, guzti honen xedea gure zerbitzu-ematea izango delarik. Honako datu hauek babesleei eman diezakegu. Datuak gaur egun dagoen legegidiaren arabera erabiltzeko izango dira eta Loyola Media, S.L., Garibai 19, 20004 Donostia idatzi bat bidali ezker, datuengano sarrera, zuzenbide, aurkakoatas eta deuszetarpen eskubideak erabiltzeko zuzen.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Herriaren izenean... espekulazioa! (2)

4) Errekalifikatu diren lurren artean Errekondone baserria kokatzen dena dago. Lotsagarria da baserri horretako jabeak ere prentsaren bidez jakitea bere lurrekin egin dutena. Lotsagarriagoa oraindik beren asmoak zein diren jakinik. Tolosana eta Ezeiza-eneak sail osoaren 2/3-k dituzten Errekondoneko jabea bere lurra saltzera behartu nahi dute, Junta de Compensación delakoaren bidez, edo beste era batera esanda, bere lurra espropiatu.

Ezin dugu ahaztu baserriko

lurrez hitz egiten ari garela, babesturiko lurrez, alegia. Honenbestez Ibarako baserri hau desagertarazi egingo dute.

Prentsan ateratako oharrean baserriak mantenduko zizutela zioten. 0,72 hektareatan 90 etxe eraikiz gero, museo modura jaso behar al dugu?

5) Proiektua justifikatzeko, Ibarak duen etxebizitza beharraz ari zaizkigu. Ados, baina berriro ere logikari so eginaz, esan behar dugu herriak dituen etxebizitza arazoei irtenbide bat emateko arau subsidiarioak erabakitzeke garaian eman behar zaiola irtenbidea, eta ez aldaketa puntual batekin 90 etxebizitza eraikitzeke baimena emanaz, non eta bizi-togietako lurretan.

Gainera, ez dago etxebizitza babesturik, denak libreak dira, eta beraz beharrez hitz egiten egiten hasiz gero, ez dugu uste 40 milioi pezetatik gorako etxebizitzek ibartarron beharrak betetzen dituztenik, baina lehen esan dugun bezala zenbaitek poltsikoak ondo baino hobeto betetzeko beste helbururik ez duen proiektu baten aurrean gaudela iruditzen zaigu...

Aparkaleku arazoak ere aipatzen dira eta kasu honetan eraikitzen den etxe bakoitzeko 0,5 aparkaleku proposatzen dira, Ibarren etxebizitza bakoitzeko ia bi aparkaleku behar direla dakitenean. Beraz, arazo honi irtenbide bat eman beharrenean egoera okerragotu baino ez da egiten. Gutxiago eraiki

eta aparkaleku gehiago egiteak, ordea, errentagarritasuna gutxitzen du.

6) Onartu behar diren arau subsidiarioei begira ere aurrekari arrisksua da, hektareako 125 etxebizitza baino gehiago eraikitzea planteatzen delako. Arauetan 8 hektarea inguru sartzen direla kontuan hartuz 1.000 etxebizitza eraikitzeke adina lur-sailez ari gara. Astakeria hutsa.

Beraz, laburpen modura esan, gure ustez emandako baimena bertan behera utzi behar dela, eta lur-sail hauek arau subsidiarioen berriketan sartu, herritarrek informatu eta herritarren iritzia kontuan hartuz, herriaren interesen arabera erabakitzeke eta ez pertsona batzuen inte-

res espekulatioen arabera. Bestalde, Errekondone baserriarekin egin nahi dutena salatu behar dugu, ez dutelako inongo eskubiderik baserri baten etorkizunaz erabakitzeke baserriarekin hitz ere egin gabe. Hemendik aurrera proposamenak eta alegazioak egiteko epea irekitzen da, eta Uzta-k aurreko gogoeta hauekin bat datozenak aurkeztuko ditu Foru Aldundiaren aurrean.

Azkenik, esan, informazio gehiago dugunean herriari jakinaraziko diogula, beti defendatu dugun moduan, herritarrok informatuak izateko eskubidea dugulako. Udalak egiten ez badu guk egingo dugu.

UZTA PLATAFORMA ▶ IBARRA
(2) Atzokoaren jarraipena

ELDUAIN ▶ KULTURA

Herriko Kontzejuak arpegi berria du

Ramon Jimenezek emango du hemendik aurrera Elduaingo Kontzejuaren martxa; pozik dago proiektu berriarekin

INIGO TERRADILLOS

Pasa den azaroaren 11n eman zitzaion irekiera ofiziala Elduaingo Kontzejuari, bere jabe berriarekin. Hain zuzen ere, Ramon Jimenez tolosarrak emango du hemendik aurrera beste bi tolosarrekin batera herriko Kontzejuak.

Irekiera ofiziala pasa den astean egin bazen ere hamaiketa-koarekin, hilaren 1ean bazkari batean bildu zen ia herri osoa. Egun horretan izan zuen jabe berriak herritarrek ezagutzeko parada. Harrera ona izan zuela eta gustura dagoela dio, eta herriaren dagoen giroa azpimarratzen du tolosarrak.

17 urtez aritu da sukaldari bezala hainbat jatetxeetan —Donostian batez ere— eta badaki zer den horrelako ne-

gozio baten martxa eramatea. Tolosarrak dioenez «negozio propioa irekitzekotan» zebilen eta bat batean suertatu zitzaion Elduaingo Kontzejuarena: «Leitzarango bidea oinez egitean herritik pasatu nintzen, ezagutzen nuen, eta bertako ezagun batek aipatu zidan lehiaketarako atera behar zuela», dio eta «egun batetik bestera aurkeztea erabaki nuen, azkenean niri egokitu zait Kontzejuaren ardura», gehitzen du Jimenezek.

Jatetxean eskainiko diren berrikuntzei dagokionez, aipatzekoa da jantoki nagusiaren ondoan jantoki txiki bat egokitu dutela 6 edo 8 lagunentzat, eta batez ere enpresetako bazkariak antolatuko dira bertan.

Emango diren jakietan, berri-
rrez, arkume mataza patata gai-

nean foierekin da bertako berezitasuna kartan, baina bakailaoa piperrekin, Tolosako babarrunak eta baserriko oilaskoa ere aipatu behar dira. Kartan 18 edo 22 euroren bultzatan jan daiteke eta menua, berri-
rrez, 9 eurotan eskaintzen dute. Egun osoan egongo da zabalik Kontzejuak, 10:30etik 24:30era luzatzen baita ordutegia eta asteazkena izango da asteko jaieguna.

Urtebeteko kontratua sinatu berri du Ramon Jimenezek Elduaingo udaletxearekin eta aurrera jarraitu nahi izanez gero lau urtez luzatu ahal izango du.

Kontzejuak eskainiko dituen taberna eta jatetxe funtzioez gain, bestelako ekitaldiak antolatzeke nahia ere azaldu du arduradunak. «Giro polita sortzea da gure helburua, eta mus-



Ramon Jimenez arduratuko da aurrerantzean Kontzejuak. I. TERRADILLOS

txapelketak edo bertso afariak bezalako ekitaldi desberdinak egin nahiko genituzke, baina horretarako, lehendabizi Udaletxearekin adostu behar dugu», aipatzen du arduradun berriak.

Astebete darama soilik, bai-

na balorazio bat egiteko, bertara joan den jendearekin, herriko nahiz kanpokoar, pozik dagoela aipatzen du Ramon Jimenezek eta horrela jarraitzea espero du. Bere aldetik jendea ere gustura uzten saiatuko dela dio sukaldariak.

iragarki laburrak ▶



Aizarnazabal. Txakolin saila duen 50.000 m²-ko lursaila salgai.

Nekazal ustiapenaren bitartez bi familientzako etxea egiteko aukera.

Anoeta. 125 m² eta garajea duen duplex etxebizitza ederra salgai.

Belautza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan; erabat argitsua.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berriak.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza duen hiru solairuko baserria salgai.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai. Nekazal

ustiapenerako egokia.

Ibarra. 75 m²-ko etxebizitza salgai. Lehenengo pisua; kanpoaldera.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, eraikuntza berrikoak.

Lizartza. Hiru solairuko baserria bordarekin, 100 m² solairu bakoitzean eta 30.000 m²-ko lursaila. Berritzeko.

Tolosa. San Esteban auzoan, 76 m²-ko etxebizitza dago salgai.

Hiru fatxada ditu, altzariek eta oso eguzkitsua da.

Tolosa. 50 m²-ko berritutako atikoa salgai; altzari batzuk baditu.

Tolosa. Gudari kalean 110 m²-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailuarekin.

Telefonoa: 943 65 55 87.

Tolosa. Gernikako Arbola kalean, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko. Telefonoa: 943 65 55 87.

EUSKARA ▶

IKA eta AEK-ak manifestaziorako deia larunbatean

Larunbat honetan Iruñean egin behar duten manifestaziora joateko deia egin dute IKA-k eta AEK-k. Arratsaldean, Gaztelu Plazatik abiatuko da, 17:30ean. Egun horretan «eskola ibiltaria» antolatuko dute «...herrita guztiok euskara ezagutu, ikasi eta erabiltzeko eskubidea dugu...» aldarrikatzu. Orain berriro Nafarroako Gobernuak aurkeztu dituen hurrengo urteko aurrekontuen proiektuan, euskararentzako bideratu asmo dituzten partiden murrizpenek euskalgintzari orohar eta bereziki euskaltegiei lekarkieken kalteak eta «akaso suntsipena» salatu asmoz eta hori ekiditeko dei modura egingo dute ekitaldia.

ARESO ▶

Leire Baraibar ere, Behobia-Donostian

Atzoko Hitzaren alean ageri ez bazen ere, akatsak zuzenduz, esan behar da, Aresoko Leire Baraibar Garmendia, Behobia-Donostia karreraren hantxe izan zela eta marka on askoa eginez gainera: 01.34.02-ko denborarekin, emakumetan, 79. lekuan iritsi zen helmugara eta orokorrean, 3.864. Jakindu ez dugun besteren bat baldiz ere, guztiei bejondeiela!

LEITZA ▶ GIZARTEA

Espainiako Poliziak Igor Astibia leitzarra atxilotu du Iruñean

Hego Euskal Herri osoan burututako operazio berean, beste 15 lagun atxilotu eta hainbat miaketa ere egin dituzte

JAIONE ASTIBIA

Astelehenetik astearterako gauean, Baltasar Garzon Espainiako Audentzia Nazionalakoko epailearen aginduz Hego Euskal Herrian Polizia espainiarrak burutu zuen atxilotu operazioan, gutxienez beste 15 lagunekin batera, Leitzako seme den Igor Astibia Teletxea atxilotu zuten, bere Iruñeko etxean.

Albistea isteko garaian, atzo iluntzeko azken uneko berrien arabera, atxilotu guztiak Madrileran eraman ote zituzten hedatzen ari ziren komunikabideetako agentzia desberdinak. Guztiak inkomunikatuta zeuden.

Eta horixe izan zen, Igor Astibiaren familiak atzo baieztatu ahal izan zuen datu bakarra, alegia beren senidea inkomunikatuta zegoela. Izan ere, atxilotu gertatu zen uneaz geroztik ez baitzuen bere egoeraren eta bera non dagoen inolako berriarik jakin ahal izan. Atzo, abokatuak senideei adierazi zenez «hemendik bost egune-

tara Igorrek berak deitu arte, ez dago deus ere jakiterik». Inkomunikazioak iraun dezakeen epea horixe da eta denbora honetan, ez senideek, ez norberaren abokatuak, ez dute atxilotuaren berri ttirik ere izateko inolako baliadiderik. Beraz, «dakitena», beti ere komunikabideetatik jasotako «berriak» dira. kasu honetan ere, beraiei inork ez zien deus ere jakinarazi. Atxilotuak eta gora-beherak besterik ez zekizkiten.

Astelehenetik astearterako goizaldean, 01:30ak aldera, Igor eta bere neska-laguna bizi diren Errotxapeako beren etxean atxilotu zituzten. Ireki eta bost polizia agente eta beste bi judizialek, berehalakoan jakinarazi zituzten bera atxilotzeko eta etxea mihatzeko agindua zerkatela eta handik aurrera inkomunikatuta geratzen zela, «ETAko azpiegiturako kide izate leporatuz». Ordu bete inguru eman omen zuten etxea arakatzen, baina azaletik bezala, «apenas mugitu dute deus. Ordenagailua eraman dute, eta

CD batzuk Baina, horrela, berterik gabe. Gehiago ere bazeuden», adierazi zituzten HITZARI atzokoan. Miaketak iraun zuen bitartean bikoteari elkarrekin hitz egiterik ez zutela ere jakinarazi omen zituzten. Etxetik ateratzerakoan ez omen zituzten eskuburdin jarri, senideek pixka bat harridura ziotenaren arabera. Orduz geroztik, goizaldeko 02:30ak aldetik, ez zuten beren senidearen berririk.

Atzo arratsaldean, Igor Astibia ez ezik, Margarita Eizaguirrek ere, beste atxilotu bat, lana egiten duten Martin Ugalde Kultur Parkean elkarretaratzeko egin zituzten lankideek atzo goizean eta arratsaldean, «beren lankideen eta gainerako atxilotuen egoeraren inguruan kezka agertuz» eta bide batez, jarraipen batzorde bat sortu zuten «frogarik gabeko atxilotetako izateko itxura» hartu zitelako atzoko polizia operazio horri. Leitzan, berriz, atzo iluntzean «dagoen informazio apurra jakinarazteko», elkarretaratzeko egiteko zuten, herriko plazan 20:00etatik aurrera.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gemrikako autobusa: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona. Anbul.: 00 69 70**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga, J. M. J. Iraola,

10, (Tolosa). 943 67 24 38.

Larraia M.I: Elbarren, 95,

(Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta-Deia. 687 41 00 22

anoeta-deia@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza-Deia. 687 41 01 18.

leitza-deia@tolosaldeko-hitza.info

Kirkir Txiki eta beste ipuinetan barrena

ARESO ▶ Atzo goiza labor askoa egin zituzten Aresoko eskolako ikasle eta irakasleei ere: Añorgaren ahotik, makina bat asmakizun, ipuin eta kontu entzun baitzituzten, eta adinean desberdinak izanagatik, 1.-6. maila artekoak dira, bakoitzak bere gustuko kontakizunak aho zabalik jarraitu zituen. Eta ez entzun bakarria, istorioen garapenean zuzenean parte hartu ere. Kirkir Txikirekin hasi, karta-barajarekin gerezi ondoarena gehitu eta oilar galduren bila aritu ziren. J. A.



iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 69 19 33.

Ileapaintzailea. Zute ileapaindegia: esperientzia handia duen neska edo mutila behar da. Asteartetik ostiralera: 10:00-18:00. Larunbata: 09:00-14:00. Tfnoa.: 943 671 934

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 17a, asteazkena ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzokieta, Aduna, Albitzuri, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzola, Anoeta, Ballarain, Belaurtza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Ibarra, Irura, Larrañaga, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orosa, Tolosa, Villabona, Zizurki.

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Euzko
Jauriaritza.
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

9

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Ander Lipus aktorearen *Ardoaz* bakarrizketa. 20:30ean Kultur Aretoan.

Anoeta. Udalak eta Ikastolak ipuin lehiaketa antolatuta dute *Bazen behin emakumeak errespetu osoz tratatzen ziren planeta bat...* gaiaz. Argibideak udaletxean.

Irura. Sukaldaritza ikastaroan izena eman dutenen bilera bihar 20:00ean udaletxean.

Leaburu. Outlook express erabiltzen ikasteko ikastaroa eskainiko dute KZgunean 09:00etatik 11:00etara.

Tolosa. Inauterietan txosnak jarri nahi dituztenen bilera. 19:00etan Kultur Etxean.

Tolosa. Laskorain ikastolako ikasle ohien afaria eta festa. Azaroaren 27an izango da Ferialekuan. Txartelak, Ikatza, Orbela eta Iruña taberneetan eros daitezke 20 eurotan 22a bitarte.

Tolosa. Tolosa CFko zikloturistek afaria egingo dute azaroaren 27an. Izena emateko: 943 65 50 92 edo 649 406 085 zenbakietan.

HITZALDIAK

Berastegi. *Artzainak munduan.* Josu Iztuetaeren eskutik. Bihar 20:30ean.

Tolosa. *Beldurraren trataera ipuinean bidez* hitzaldia emango du Juan Carlos Alonso psikologoak guraso eta irakasleentzat. Haur Liburutegian 18:00etan.

Tolosa. Emeterio Arrese hil zela 50 urte direla-eta, Juan Garmendia Larrañaga eta Jose Mari Iturralde idazleen hitzaldia bihar 18:30ean Kultur Etxean.

Villabona. Osasun etxeko medikuak *Osteoporosia, prebentzioa* hitzaldia emango du Biltoki elkartearen bihar 17:00etan.

ZINE-KLUBA

Alegia. J.J. Campanella-ek zuzendutako *El mismo amor, la misma lluvia* filma argentinarra Gaztetxean.

Ibarra. Jessie Nelsonen *Yo soy Sam* filma. Gaztetxean bihar 21:45ean.

Tolosa. Andres Wood zuzendariaren *Machuca*. Leidor zineman bihar 21:30ean.

Ekitaldi magrebiarrak

TOLOSA ▶ Irazki elkarte kulturantzak ekintza ezberdinak antolatu ditu gaurtik hasita larunbata bitarte; hitzaldiak, ikuskizunak eta festa izango dira



Irazki elkarte kulturantzako kideak, asteartean emandako prentsaurrekoan. MADDI SOROA

ERREDAKZIOA

Kultur aniztasuna indartzeko asmoz, Irazki elkarte kulturantzak, Magrebaren (Libia, Aljeria, Maroko —bereberek eta amazighak barne direla—), Tunezen, Mauritaniaren eta Saharar Errepublikaren inguruko hainbat ekintza ezberdin antolatu ditu aste honetarako. Jardunali hauek, Irazkiren egitarauaren barnean antolaturiko *Tolosa munduan*, *mundua Tolosan* proiektuaren barnean burutuko dira.

Ekintza hauen bitartez, magrebiarren ezagutza errazten lagunduko duten elementuak eskaintzea da elkartearen helburu nagusia. Modu horretan,

bertako nahiz kanpoko herritarrrak sentsibilizatu, aurreiritzak baztertu eta elkarbizitza soziala bultzatu nahi delarik. Irazki elkarte kulturantzaren arabera, festa edota data bereziak ospatzerakoan kultura ezberdinetako herritarrek errespetu eta laguntza bera merezi dutelakoan daude, eta horixe da ekitaldi hauen bitartez lortu nahi dena ere.

Elkarteari egokia iruditu zaio Tolosaldeko herritarrek, ramadan amaierako festa egitarauaren sartzeari, horrela, herritarrek ere parte hartzeko. Sarrerak, Laier, Orbela, Ikatza, Iratxo eta Tolosako C.Fen 12 euroren truke. Hitzaldiak eta erakusketak, 19:30ean izango dira Kultur Etxean.

EGITARAUA ▶

ASTEAZKENA

Hitzaldia. *Magreb, gertuko Islama. XXI. mendeko eronkak* hitzaldia. Txentxe Rekondo eta Jabier Aixa.

OSTEGUNA

Hitzaldia. *Euskaldunen eta etorkinen arteko elkarbizitza kultur arteko gizarte berri baterako zimenduak*, Abdoulaye Gueyeren eskutik

OSTIRALA

Diaporama. *Ahaggar... amets bat izan nuen* diapositiba

emaldia Iñaki Edrosoren eskutik.

LARUNBATA

Ramadan amaierako festa. 11:00etatik 14:00etara plaza Berrian ipuin kontalaria, henna tailerra, elikagai dastaketa eta musika. Gauean afaria, Magreb-eko janari tipikoa eta Bouhia taldearen musika Abastos plazan.

GAURTIK LARUNBATERA

Erakusketa. *Ahaggar... amets bat izan nuen* argazkiak Kultur Etxean. Iñaki Edroso.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Maialen (Villabona). Gaur 20 urte. Muxu handi bat. Ebekoak.



URTE ASKOAN
Beñat Lopez Urruzola (Tolosa). Gaur 11 urte. Zorionak ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Andres Gaztañaga (Ibarra). Zorionak aitona ebekoen partez.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzez:
Araba etorbidea, 5. behe - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!